Bada zenbait urte Herriko Etxeak gure herrian edo inguruan antolatuak diren gartakarien berri emaiten dizuetela.

Argitasun hauek internetez errezipitatzeko interesatuak baizirezte, jakinaraziezaguzue, helbide honetara idatziz : isturits-com@outlook.fr

L'aire de jeux

Pendant la période scolaire :

L'aire de jeux n'est pas accessible pendant les horaires d'école.

L'aire de jeux est accessible le week-end.

L'aire de jeux est accessible le mercredi à partir de 14h.

L'aire de jeux est accessible les lundis, mardis, jeudis et vendredis à partir de 17h.

Pendant les vacances scolaires :

Lorsque les locaux sont occupés par le centre de loisirs :

L'aire de jeux est accessible selon le calendrier.

Lorsque l'aire de jeux est occupée l'après-midi par le centre de loisirs, elle est accessible au public à partir de 18h30.

Lorsque l'aire de jeux n'est pas occupée par le centre de loisirs, elle est accessible au public.

A titre exceptionnel, l'aire de jeux peut être interdite au public.

Pour le confort et le respect de tous, il est impératif de laisser cet endroit aussi propre que vous l'avez trouvé. Pour cela, de nombreuses poubelles sont mises à votre disposition.

Jostalekua

Eskola denboraldian:

Jostalekua ez daiteke erabil eskola tenoreetan

Jostalekua asteburuetan erabil daiteke

Jostalekua asteazkenetan erabil

daiteke 14:00etatik goiti

Jostalekua erabil daiteke

astelehenez, asteartez, ortzegunez

eta ortziralez 17:00etatik goiti

Eskolako bakantza denboretan:

Aisialdi zentroak lokalak erabiltzen dituelarik:

Jostalekua erabil daiteke, honi lotua den egutegiaren arabera;

Aisialdi zentroak jostalekua arratsaldeetan erabiltzen duelarik, publikoak erabil dezake 18:30etik goiti.

Aisialdi zentroak jostalekua ez duelarik erabiltzen, publikoak erabil dezake.

Ohiz kanpoko gertakari bat gerta balitz, jostalekua publikoari hetsia izan daiteke.

Ororen atsegingarri eta errespetagarri, baitezpadakoa da leku hau harrapatu duzun bezain garbia utz dezazun. Horretarako, zikin ontzi andana bat aurki ditzakezu.

**LA VIE ASSOCIATIVE DU
VILLAGE**

**ELKARTEEN BIZIA
HERRIAN**



Voici les événements organisés par Artetxea en 2019 :

- Championnat du Pays-Basque de mus avec 12 équipes
- En avril, nous avons fêté le passage de la KORRIKA avec buvette, talo et txaranga.
- Théâtre des frères Fusch, Zazpi Senediko, devant une 60aine de spectateurs.

- Matinée Troc : une belle occasion pour se troquer habits, sacs, livres...dont nous n'avons plus l'utilité.

- Fin août, une centaine de personnes ont pu apprécier le kantaldi de Paxkal Irigoyen et Niko Etxart.

- Théâtre Herriko Bozak, devant 130 personnes

- Nous avons également participé à l'organisation de la finale de Xilaba en partenariat avec Bertsolarien elkarte

- Une douzaine de jeunes du village ont interprété 2 pièces de théâtre Eusko Dorrea et Dentista lors des fêtes d'Isturits.

Nous noterons que la mairie d'Ustaritz les a également invités à jouer ces pièces lors de la semaine culturelle qu'ils organisent !! Ce fut un honneur et un grand plaisir !!

- A l'occasion des fêtes du village une centaine de personnes ont participé au repas animé par Watson

- Lors des vacances d'octobre un stage de cirque a été organisé pour les enfants

- En décembre, organisation du concert des familles avec Soinubila

Des activités régulières sont également proposées durant toute l'année :

- Yoseikan Budo pour adultes le mardi soir,
- Cours d'Euskara le mardi soir
- Yoga pour adultes le mercredi soir,
- Yoseikan Budo pour enfants le jeudi après-midi,
- Yoseikan training pour adultes le jeudi soir
- Artetxea Kantuz avec Watson le dernier vendredi de chaque mois.

Voici 2 rendez-vous pour 2020 que vous pouvez d'ores et déjà noter :

- 29 août : concert Aire Ahizpak et Ruper Ordorika
- Repas chanté lors des fêtes du village

Nous voulons également rappeler dans quel but est né l'association Artetxea.

Nous souhaitons redonner une nouvelle vie à un bien du village et proposer des activités en langue basque (chants, conférences, bertso...)

Cette année encore, nous avons à cœur de participer à la vie du village.

Si vous souhaitez plus d'informations sur Artetxea ou sur les activités proposées vous pouvez contacter :

- Joelle : 06 84 53 14 44

Jon : 06 31 64 60 88

Patricia : 06 82 92 75 49



PIECE DE THEATRE :
La jolie troupe 2019.

ARTETXEA ELKARTEA



Huna 2019 urtean Artetxean iragan diren animazioak :

- Euskal herriko mus txapelketaren** kanporaketa, nun 12 ekipek parte hartu zuten.
- Euskararen aldeko **KORRIKA** gure herritik pasatzea ospatu ginuen, ostatu, talo eta txarangarekin.
- **Zazpi senideko** antzerkia eman zuten Fuchs anaiek 60 bat lagunengain aintzinean.
- Trukaketa goiza** egin zuten 15 bat lagunek. Parada ezin hobea baliatzen ez diren jantzi, jostailu, landare edo beste trukatzeko.
- **Paxkal Irigoien** eta **Niko Etxart** kantari famatuaren kontzertua gozatu zuten 100bat ikuslek.
- Herriko bozak** antzerkiak 130 bat ikusle irrinarazi zituen oren bat eta erdiz.
- Iparraldeko **bertso finala** antolatu ginuen « Bertsolarien lagunak » elkartearekin herriko gelan, 180 bazkaltier eta 250 bat ikusle bildu zituen.
- Dentista** eta **Eusko dorrea** antzerkiak eman zituzten herriko dozena bat haur eta gaztek, gela bete baten aintzinean. Ohargarria aurten Uztaritzeko Herriko etxeak antolatzen duen aste kulturalera gomiatuak izan zirela gure antzerkilariak antzerki hauen berriz emaitako, ohore bat !!!
- Herriko pestetako igandearekin** usaiako **Kantu bazkaria** egin zen **Watson**ek alaiturik. Urrunatik jin sukaldariak egin **Marmitakoa** prezaitu zuten 100 bat bazkaltierrek.
- Urriko bakantzetan zirko ikastaldi bat antolatu zen haurrentzat.
- SOINUBILA** musika eskolan ibiltzen diren herriko haurrek ikusgarri bat eman zuten, urtean zehar ikasia entzuteko parada izan zen.

Animazioez gain, Artetxeak urte osoko jarduerak antolatzen ditu :

- Yoseikan budo** arte martziala **helduentzat** astearte arratsetan
- Yoga** astezken arratsetan **helduentzat**
- Yoseikan budo haurrentzat** ostegun arrastietan
- Yoseikan training helduentzat** ostegun arratsetan
- Euskara ikasteko kurtsoak** astearte arratsetan
- Artetxea kantuz** kantu taldea hilabeteko azken ostiraletan **Watson**ekin, parada lehengo eta oraiko kantuen ikasteko eta kantatzeko !

2020 urte hasiera zail hunen ondotik, 2 data jadanik nota ditzakezue zuen egutegietan :

- lehena agorrilaren 29an iraganen den kantaldia, **Aire ahizpak** eta **Ruper Ordorika** artistekin.
- bigarrena herriko pestetako **Kantu bazkaria**.

Oroitaraz dezagun Artetxea elkarte zer helbururekin sortu zen.

Alde batetik hetsia zen herriko ontasuna den ikusgarri gela horri bizi berri baten emaitako eta bestetik euskarazko ekintza kulturalen antolatzeko (mintzaldiak, kantaldiak, antzerkiak, bertso emanaldiak, eta beste...)

Elkarte gaztea izanik ere, gure herriaren bizian parte hartzeko gogoia dugula segurtatzen dugu aurten ere.

Xehetasun gehiago nahi izanez gero gure elkarteaz edo jardueraz, deitu :

Joelle : 06 84 53 14 44

Jon :06 31 64 60 88

Patricia :06 82 92 75 49



KORRIKA : aldi guziz bezala, herritar ainitzek beren atxikimendua erakusten dute euskarari!



ASSOCIATION COMMUNALE DE CHASSE AGRÉÉE GORATIK

L'Association Communale de Chasse Agréée (ACCA) d'Isturitz rassemble actuellement une trentaine de chasseurs (dont la moitié ne résident pas sur notre commune).




Notre territoire est varié (bois / landes / fougères / prairies) et les animaux qu'on peut y rencontrer le sont tout autant : chevreuils, sangliers, lapins, lièvres, palombes, grives, faisans et bécasses étant ceux qui intéressent particulièrement les chasseurs.

Pour ce qui est des éléments marquants des dernières années, on peut noter que :

- Les populations de grand gibier (sanglier / chevreuil) se portent bien voire très / trop bien :
 - o le plan de chasse annuel pour le chevreuil (chaque animal prélevé devant être équipé d'un bracelet de marquage réglementaire) s'élève à 16 animaux,
 - o le nombre de sangliers prélevés augmente également régulièrement à Isturitz et sur les communes voisines. Pour cette espèce dont les effectifs et les dégâts correspondants sur les cultures sont en hausse, il n'y a pas de quotas. La période de chasse du sanglier est de plus en plus longue : du 15/08 au 28/02 lors de la saison 2019/2020 ; du 1^{er}/06 au 31/03 pour la saison 2020/2021.
- La migration des palombes (qui vont passer l'hiver plus au Sud) n'est plus aussi étalée sur le mois d'octobre qu'auparavant et elles passent de plus en plus souvent en masse sur quelques jours où les conditions météo et de vol sont optimales pour elles ...
Dans le même temps, de plus en plus de palombes restent hiverner sur notre secteur car elles y trouvent de la nourriture, de bons dortoirs et de la quiétude.
- Le petit gibier est également présent sur le territoire. Aucun lâcher de faisans et de lièvres n'a été effectué depuis de nombreuses années. Ceux que vous croisez sont nés en plein air.
- L'ACCA organise (dans le courant du mois d'août habituellement) le nettoyage des chemins avec un tracteur - girobroyeur et / ou avec des débroussailleuses dans les endroits les plus escarpés. Cela permet aux chasseurs de pouvoir circuler plus facilement mais aussi à d'autres usagers de la nature de pouvoir en profiter par la suite : VTTistes, randonneurs, amateurs de trail ...
- Le renouvellement de la population de chasseurs est difficile et les jeunes (ou moins jeunes) peinent à venir grossir les rangs (il n'y a pas d'effet coupe du Monde ou de Kylian Mbappé / Antoine Griezmann dans nos rangs 😊).

Autrefois passe-temps populaire des habitants de nos campagnes, ce loisir de plein air mérite (à nos yeux) d'être connu. Si vous souhaitez éventuellement vous faire une idée de la chose (on n'aime / n'aime pas que ce qu'on a déjà goûté ... Du moins, c'est comme ça en cuisine !) et accompagner à l'occasion un chasseur (chien d'arrêt ou courant, seul, en chasse collective ou même à l'arc) vous pouvez contacter un membre du bureau de l'ACCA :

- Guillaume LABARERE : 06.59.91.88.04
- Peyo ETCHEGOYEN : 06.79.71.67.46
- Jon ETCHART : 07.82.66.15.67



IZTURITZEKO ONETSITAKO IHIZI ELKARTEA GORATIK




Gaur egun, hogeita hamar bat ihiztarik osatzen dute Izturitzeko onetsitako ihizi elkarteak (horietarik erdia ez delarik herrian bertan bizi).

Gure lurraldea itxura anitzekoa da (oihanak / larreak / iratzelekuak / pentzeak), baita aurki ditzakegun animaliak ere: orkatzak, basurdeak, untxiak, erbiak, usoak, biligarroak, faisaiak eta pekadak direlarik bereziki ihiztariak interesatzen dituztenak.

Azken urteetako elementu ohargarriak dagokienez, azpimarra dezakeguna:

- Ihizi larriaren populazioak (basurdeak / orkatzak) ongi dabilta, arras / sobera ongi berdin:
 - o orkatza ihiztatzeko urteko plana (hartutako animalia bakoitzari arauen arabera markatze-eskumuturreko bat ezarri behar zaiolarik) 16 animalia hiltzen da,
 - o hartutako basurde kopurua ere erregulariki igotzen da Izturitzen eta auzo herrietan. Laborantzaren gaineko kalteei dagokien espezie honen kopurua gorantz doa, kuotarik ez da. Basurdea ihiztatzeko sasoia gero eta luzeagoa da: 08/15etik 02/28ra 2019/2020ko sasoiaren; 06/01etik 03/31ra 2020/2021eko sasoiarako.
- Usoen migrazioa (negua hegoalderago iragaten baitute usok) ez da gehiago lehen bezain hedatua urriaren epean eta gero eta maizago egun batzuen epean saldoan pasatzen dira, eguraldi eta hegaldi baldintzak ezin hobeak dituztelarik... Denbora berean, uso gero eta gehiago egoten da neguan gure eskualdean, elikadura, ohandze toki goxoak eta lasaitasuna aurkitzen dituztelako.
- Ihizi xehea ere badago gure lurraldean. Badira urteak ez dela faisai edo erbi askatzerik egin. Gurutzatzen dituzuenak aire librean sortu ziren.
- Herriko onetsitako ihizi elkarteak bideen garbiketa antolatzen du (usaian agorrilean) traktore - xehamakina edota sasi garbitzeko makina bati esker toki malkartsuetan. Horri esker, ihiztariak aiseago ibil daitezke eta izadizaleek goza dezakete: mendiko bizikletariak, ibiltariak, mendi lasterketazaleak,...
- Ihiztari taldearen erreberritzea ez da erraz eta gazte edo ez hain gazteek gure elkarteak nekez handitzen dute (ez dago Munduko Txapelketa eraginik edo Kylian Mbappé / Antoine Griezmann delakorik gure artean). Behiala gure baserrialdeko biztanleriaren denbora-pasa herrikoia izanagatik, kanpoko aisialdi hau ezagutzea merezi du (gure iduriko). Nahi baldin baduzue jarduera horretaz ideia bat ukan (jadanik dastatu duguna bakarrik gustatzen zaigu / ez zaigu gustatzen... sukaldean segurik hala da!) eta ihiztari bat laguntzeko aukeraz baliatu (erakustxakurrekin edo arrasto-txakurrekin, bakarkako ihizia, mendi-ihizia edota balezta), elkarteko bulegari batekin harremanetan sar zaitezke:

- Guillaume LABARERE : 06.59.91.88.04
- Peyo ETCHEGOYEN : 06.79.71.67.46
- Jon ETCHART : 07.82.66.15.67



ABARRATIA AYHERRE / ISTURITS / SAINT ESTEBEN

En 2019, les effectifs sont restés stables malgré une baisse des inscriptions en école de pelote: 73 licenciés sportifs, soit 50 en main-nue et 23 en paleta gomme.

9 entraîneurs pour la main-nue et 5 pour la paleta gomme ont assuré les entraînements toutes les semaines, aux trinquets d'Isturits et d'Ayherre, au fronton d'Ayherre et au mur à gauche de Saint-Esteben **ABARRATIA** a disputé **7 finales** dont 4 en paleta gomme creuse féminine (baline), spécialité démarrée en septembre 2018 (récapitulatif ci-dessous).



Une action importante pour le club, a été l'organisation avec le Comité Territorial de pelote du Pays-Basque de « **Pilota Eskolan** » afin de palier à la baisse d'effectif en école de pelote. Du 25 au 27 juin 2019, Antton Amulet et Iban Hiriart Urruty, éducateurs du CTPPB et joueurs de main-nue, assistés de Fred Bereau et Christine Etcheverry pour ABARRATIA sont allés à la rencontre des élèves de CP-CM2 des écoles d'Ayherre, Isturitz et St Martin d'Arberoue afin de leur faire découvrir différentes spécialités de la pelote basque (main-nue, pala, chistera et xare) au travers d'ateliers ludiques. Ces ateliers ont été une réussite puisque pour la saison 2020 nous avons eu 14 inscriptions.



Eloïse ETCHEVERS & Manon MERIGUET
Oloron Ste Marie,
le 10/02/2019
Oloroe-Donamaria,
2019/02/10ean

En 2019, les polos du club ont été renouvelés avec de nouveaux sponsors. A la demande de nos jeunes pilotaris, des vestes d'échauffement ont également été créées en partenariat avec l'entreprise **ZABAL Menuiseries**.

Des activités et animations ont été organisées pour maintenir l'équilibre financier et le lien social avec les familles. Le bilan financier présente un résultat bénéficiaire de **260,32 €**.

Les dirigeants et entraîneurs d'**ABARRATIA** profitent de ce bulletin pour remercier la mairie d'Isturits pour la mise à disposition du trinquet pour les entraînements et les parties de championnats, et les familles pour leur aide et soutien (déplacements et support pendant les entraînements).

AUPA ABARRATIA !!

RÉSULTATS DES FINALES DISPUTÉES EN 2019

DATE	LIEU	CHAMPIONNAT	EQUIPES	SCORE
26/01/2019	USTARITZ	FINALE C.T.P.B. P.G CREUSE TRINQUET POUSSINES GR B	IRISARTARRAK 01 (OXANDABARATZ Kleina - LABAT Xana) ABARRATIA 02 (ETCHEVERS Eloïse - MERIGUET Manon)	10 / 02 05 / 10
10/02/2019	OLORON	FINALE CHALLENGE NATIONAL P.G. CREUSE TRINQUET - POUSSINES B	ABARRATIA 01 (ETCHEVERS Eloïse - MERIGUET Manon) DENEK BAT 01 (BETAT Elena - BIDART Jade)	10 / 10 09 / 06
10/02/2019	OLORON	FINALE CHALLENGE NATIONAL P.G. CREUSE TRINQUET - MINIMES B	ABARRATIA 01 (SOUBELET Miren - MINJOU Maika) DENEK BAT 01 (GARAT Laura - DURCUDOY Idoia)	15/09/07 10/15/10
06/07/2019	ARBERATS	FINALE C.T.P.B. MAIN-NUE FRONTON CADETS B	ABARRATIA 02 (HARGUINDEGUY Xabi - BEREAU Benito) LAU HERRI 02 (DAGUERRE Xabi - HOUSSET Imanol)	30 28
20/07/2019	ST MARTIN D'ARBEROUE	FINALE C.T.P.B. MAIN-NUE FRONTON MINIMES B	ABARRATIA03(OIHENART-ETXART Iztebe-MARTINONAlande) LAU HERRI 01 (DACHARY Ramuntxo - DAGUERRE Xan)	22 30
20/07/2019	ST MARTIN D'ARBEROUE	FINALE C.T.P.B. MAIN-NUE FRONTON POUSSINS B	ABARRATIA01(ANCHORDOQUYMattin-HARGUINDEGUYMikel) DENEK BAT 02 (ETCHEVERRY Iñaki - HEGUY Iban)	30 23
24/11/2019	ST PEE SUR NIVELLE	FINALE C.T.P.B. P.G CREUSE TRINQUET POUSSINES GR B	ABARRATIA 01 (LABARERE Chloé - ETCHEGOYEN Pantxika) DENEK BAT 02 (BROINE Elaia - MOUSTIRATS Léa)	10 / 10 06 / 08

ABARRATIA AIHERRA / ISTURITZE / DONOZTIRI

2019an, kide kopurua iraunkorra egon da, pilota eskolan izena eman dutenen kopurua ttipitu baldin bada ere: 73 kirol-lizentziadun, horietarik 50 esku-huska eta 23 gomazko paletan.

Entrenatzaileek (9 esku-huskakoak eta 5 gomazko paletakoak) entrenamenduak bermatu dituzte astero, Izturitzeko eta Aiherrako trinketetan, Aiherrako pilotalekuan eta Donoztiriko ezker paretan.

ABARRATIAk 7 final jokatu ditu, horietarik 4 nesken gomazko barren-hutsako paletakoak, 2018ko irailean hasitako espezialitatea (laburbilduma azpian).

Taldearentzat garrantzitsua izan da **"Pilota Eskolan"** ekimena, Iparraldeko Pilota Batzordearen ondoan antolatua, pilota eskolako kide kopuruaren ttipitza konpentsatzeko. 2019ko ekainaren 25etik 27ra, Antton Amulet eta Iban Hiriart Urruty, IPBko hezitzaileak, eta ABARRATIA elkarteko Fred Bereau eta Christine Etcheverry, Aiherra, Izturitze eta Donamartiriko eskoletako lehen mailako ikasleengana joan dira, euskal pilota mota desberdinak ezagutarazteko (esku-huska, pala, xistera eta xarea), tailer jostagarri batzuen bidez. Tailer horiek arrakasta bildu dute 2020ko denboraldirako 14k izena eman baitute.



Iztebe OIHENART-ETXART & Allande MARTINON
St Martin d'Arbérœue, le
20/07/2019
Donamartiri, 2019/07/20an

2019an, klubeko poloak arraberritu ditugu babesle berriekin. Gure pilotari gazteek eskaturik, beroketarako jakak ere sortu ditugu enpresarekin partaidetzan.

Jarduerak eta animazioak antolatu ditugu finantza-oreka eta familiekin lotura mantentzeko. Kontuak **260,32 €ko** irabazkin emaile izaten dira.

ABARRATIAko zuzendariek eta entrenatzaileek aldizkari hau baliatzen dute Izturitzeko herriko etxea eskertzeko

trinketa haien esku ezarriagatik entrenamenduak eta txapelketa partidak egin ahal izateko, baita familiak ere ekarri duten laguntza eta sostenguagatik (joan-etorrietan ibiltzea eta sostengatzea entrenamendu garaian).

AUPA ABARRATIA!!

2019an JOKATUTAKO FINALEN EMAITZAK

NOIZ	NON	TXAPELKETA	TALDEAK	EMAITZ A
2019/01/26	UZTARITZE	GOMAZKO PALETAKO I.P.B. FINALA TRINKETA XITO-MAILAKO B NESKA TALDEA	IRISARTARRAK 01 (OXANDABARATZ Kleina - LABAT Xana) ABARRATIA 02 (ETCHEVERS Eloïse - MERIGUET Manon)	10 / 02 05 / 10
2019/02/10	OLOROE-DONAMARIA	GOMAZKO PALETAKO LEHIAKETA NAZIONALEKO FINALA TRINKETA XITO-MAILAKO B NESKA TALDEA	ABARRATIA 01 (ETCHEVERS Eloïse - MERIGUET Manon) DENEK BAT 01 (BETAT Elena - BIDART Jade)	10 / 10 09 / 06
2019/02/10	OLOROE-DONAMARIA	GOMAZKO PALETAKO LEHIAKETA NAZIONALEKO FINALA TRINKETA GAZTETXO-MAILAKO B TALDEA	ABARRATIA 01 (SOUBELET Miren - MINJOU Maika) DENEK BAT 01 (GARAT Laura - DURCUDROY Idolia)	15/09/07 10/15/10
2019/07/06	ARBERATZE	ESKU HUSKAKO I.P.B. FINALA PILOTALEKUA KADET-MAILAKO B TALDEA	ABARRATIA 02 (HARGUINDEGUY Xabi - BEREAU Benito) LAU HERRI 02 (DAGUERRE Xabi - HOUSSET Imanol)	30 28
2019/07/20	DONAMARTIRI	ESKU HUSKAKO I.P.B. FINALA PILOTALEKUA GAZTETXO-MAILAKO B TALDEA	ABARRATIA 03 (OIHENART-ETXART Iztebe - MARTINON Alande) LAU HERRI 01 (DACHARY Ramuntxo - DAGUERRE Xan)	22 30
2019/07/20	DONAMARTIRI	ESKU HUSKAKO I.P.B. FINALA PILOTALEKUA XITO-MAILAKO B TALDEA	ABARRATIA 01 (ANCHORDOQUY Mattin - HARGUINDEGUY Mikel) DENEK BAT 02 (ETCHEVERRY Iñaki - HEGUY Iban)	30 23
2019/11/24	SENPÈRE	GOMAZKO PALETAKO I.P.B. FINALA TRINKETA XITO-MAILAKO B NESKA TALDEA	ABARRATIA 01 (LABARERE Chloé - ETCHEGOYEN Pantxika) DENEK BAT 02 (BROINE Elaia - MOUSTIRATS Léa)	10 / 10 06 / 08



Mattin
ANCHORDOQUY & Mikel HARGUINDEGUY
St Martin d'Arbérœue,
le 20/07/2019
Donamartiri,
2019/07/20an



Chloé LABARERE & Pantxika ETCHEGOYEN
St Pée sur Nivelle, le
24/11/2019
Senpere,
2019/11/24an

ZABAL Menuiseries

ARBEROA IKASTOLA AINTZINA



L'association Arberoa Ikastola Aintzina est constituée de parents d'élèves d'Isturits qui oeuvrent pour le soutien et la promotion d'Arberoa Ikastola (Saint Martin d'Arberoue).

Comme d'habitude l'association a organisé 3 événements cette année. Arberoa eguna, la fête de l'ikastola, le repas de la finale de bertso Xilaba et le marché de Noël en décembre.

Ces animations permettent d'une part de prendre part à l'animation de notre village et d'autre part de récolter des fonds pour le fonctionnement de l'ikastola.

Cette année nous avons pu goûter aux joies d'être dans de vraies salles de classe, de cantine ou d'espace de jeux. Quel plaisir!

Environ 65 élèves ont fait leur rentrée en septembre 2019, dont 20 d'Isturitz, et nous finirons l'année avec 70 élèves.

Le projet de l'ikastola est construit autour de 3 axes :

- l'immersion totale, qui permet à l'enfant d'être bascophone, (pour jouer, communiquer, apprendre en basque)
- le vivre-ensemble, enfants et adultes, main dans la main, sur le chemin de la bienveillance
- le respect de l'environnement (compostage, goûter biologique, recyclage...).

Pour suivre la vie de l'ikastola : **arberoaikastola.org**

Les portes ouvertes auraient dû avoir lieu le 28 mars mais ont été annulées à cause du confinement, pour avoir des renseignements, n'hésitez pas à contacter l'ikastola à l'adresse arberoakoikastola@gmail.com ou à appeler l'un de ces parents :

Aline Dupouy 06.70.11.63.79
Xobadin Arotçarena 06.81.99.96.57

JOURNEE ARBEROA :

Finale de la partie de pelote.



ARBEROA IKASTOLA AINTZINA



Arberoa Ikastola Aintzina Izturitzen kokatzen den elkarte bat da, haurrak Arberoa ikastolan (Donamartirin) dituzten burasoez osatua da. Arberoa ikastola sustengatzea du bere helburu nagusia.

Ohitura den bezala, aurten ere, gure elkarteak 3 animazio egin ditu.

Arberoa eguna ekainean, Xilaba bertso finaleko bazkaria eta eguberriko merkatua abendoan.

Animazio hauek 2 helburu zituzten, alde batetik herriko bizian parte hartzea eta bestetik dirua biltzea ikastolaren ibilmoldearentzat.

Aurten, eraikuntza berri berrian egin dugu sartzea eta gozatu ahal izan dugu egiazko jangela, ikasgela eta joko eremuetan izaitea! Zer plazerra!

2019ko sartzean 65 bat haur ziren, horietarik 20bat Izturiztarrak, eta urte bukaerako 70 izanen direla aurreikusten dugu.

Arberoa ikastolaren proiektuaren oinarriak oroitaraz ditzagun :

- murgiltze eredua, haurra euskaldun oso izan dadin (euskaraz jostatzeko, harremantzeko eta ikasteko!)
- elkarbizitza zutabe duen ikastetxea, haur eta heldu elgarrekin ongizatearen bidean
- ingurumenaren errespetuan ari den ikastetxea (hondarkinen berexketa, askari biologikoak, birziklatzea,...)

Ikastolako bizia hurbilagotik segitzeko : **arberoaikastola.org**

Ate idekiak martxoaren 28ko aurreikusiak ziren, baina konfinamenduaren ondorioz ezeztatuak izan dira, halere norbait informazioez interesatua balitz idatz arberoakoikastola@gmail.com helbiderat edo herriko buraso hauetarik bati deitu :

Aline Dupouy 06 70 11 63 79
Xobadin Arotçarena 06 81 99 96 57



Zigante eta gaitero: giro ederra herriko plazan !

APE BIGABAT

Nous tenons en premier à remercier tous les membres actifs de l'association APE BIGA BAT et leurs partenaires pour leur implication dans la réussite des manifestations réalisées cette année.

Notre association cherche à donner un maximum de moyens aux écoles du RPI pour leur permettre de faire découvrir de multiples activités à ses enfants inscrits.

Pour ce faire, nous organisons les manifestations suivantes :

- Tournoi de Mus en février
- Vente de gâteaux le jour des élections
- Randonnée pédestre le 1er mai

Le tournoi de mus et la vente de gâteaux se sont réalisés dans des conditions normales à défaut de la randonnée qui a dû être annulée du fait de la crise sanitaire COVID-19.

Chaque année nous réunissons plus de 80 équipes au tournoi de Mus avec un record atteint en 2020 de 88 équipes. Les participants nous sont très fidèles et rendent cette journée très agréable par la bonne humeur qui règne dans la salle. La nouvelle formule, depuis 2019, du plateau repas rencontre le succès attendu et nous permet d'augmenter notre résultat.

Merci vraiment au Muslari pour leur participation au jeu mais aussi au bar et snack.

Nous remercions également les isturiztars qui nous rejoignent en fin de journée pour goûter nos taloas et plateaux repas, sans oublier leur achat de gâteaux lors des élections municipales.



L'aide de nos nombreux partenaires (commerçant, entreprise, mairie...), la participation engagée des membres de l'APE et surtout le public participatif nous ont permis de réussir ces manifestations et ainsi avoir un résultat financier positif. Le montant n'étant pas encore calculé, nous vous ferons parvenir les éléments ultérieurement.

Ces fonds devaient être alloués en majorité aux sorties scolaires des enfants, Paris pour les grands et Zugarramurdi pour les petits.

La crise sanitaire a également causé l'annulation de ces projets.

Nous avons en tout cas, comme chaque année organisé la fête de Noël avec la participation de l'école et d'un animateur. Nous avons aussi fourni les cadeaux de Noël aux écoles.

Vraisemblablement, l'association va maintenir toutes ces activités l'année prochaine. Le succès rencontré chaque année nous motive à perpétuer ces manifestations. La joie exprimée des enfants lors des activités périscolaires est aussi une grande source de satisfaction.

BIGABAT GURASO ELKARTEA

Lehenik eskertu nahi ditugu APE BIGA BAT elkarteko kide aktibo guziak eta haien partaideak aurten antolatu ekitaldi arrakastatsuetan inplikaturik.

Gure elkartearen xedea HBPKo eskolei ahal bezainbat baliabide ematea da, izena emana duten hurrek jarduera mota anitz ezagut ditzaten.

Horretarako, ekitaldi hauek antolatzen ditugu:

- Mus txapelketa otsailean,
- Bixkotx salmenta hauteskunde egunean,
- Oinezko ibilaldia maiatzaren 1ean.

Mus txapelketa eta bixkotx salmenta baldintza normaletan iragan ziren, haatik ibilaldia ezeztatu behar izan zen COVID-19 gaitzaren osasun larrialdiarengatik.

Urte guzietan 80 talde baino gehiago biltzen ditugu mus txapelketan, eta 2020an sekula baino talde gehiago ukan ditugu: 88. Parte hartzaileak izigarri fidelak zaizkigu eta egun hori biziki goxoa egiten dute, gelan giro ona baita nagusi. 2019az geroztik apairu-azpila ere proposatzen da eta horren arrakastari esker gure emaitza emendatu dugu.

Milesker handi bat muslariei jokoan parte hartzeagatik, baita ere ostatuan eta snack xokoan jan eta edateagatik.

Izturiztarrei ere milesker: alabaina, egun bukaeran heldu dira gure taloen eta apairu-azpilen dastatzera, eta herriko bozetan bixkotxak erosi dituzte.



Gure partaideen (saltzaileak, enpresak, herriko etxea...) laguntzari esker, elkarteko kideen parte hartzeari esker eta sustut publikoari esker, ekitaldi horiek arrakastatsuak izan dira eta finantza-emaitza positiboa egin dugu.


Diru hori haurren eskolako ateraldietarako emanen da nagusiki: handienak Parisera joateko eta ttipienek urte bukaerako ateraldia egiteko.

Osasun larrialdiarengatik proiektu horiek ezeztatu behar izan ditugu.

Baina urte guzietan bezala, Eguberriko besta antolatu dugu eskolarekin eta animatzaile batekin. Eskolei Eguberriko opariak eman ere ditugu.

Hain segur elkarrekin jarduera horiek guziak mantenduko ditu heldu den urtean. Urte guzietan ekitaldiak arrakastatsuak baitira, segitzeko motibatzen gaitu. Eskolaldi inguruko jardueretan hurrek erakusten duten bozkarioak ere betetzen gaitu.

LE COMITÉ DES FÊTES



Isturitzeko Gazteria

Lors de l'année 2019, le comité des fêtes a organisé et mené à bien deux projets.

Le premier fût la soirée cidrerie, le 9 février. Les personnes présentes au repas ont pu se régaler de chorizos au cidre, d'omelettes à la morue, de txulets, et même de crêpes, sans oublier le cidre à volonté. À partir de minuit, beaucoup de monde est arrivé pour danser sur les musiques du Podium Galaxiie, qui a assuré la deuxième partie de soirée jusqu'à 4h00. Une soirée très agréable qui a été reconduite cette année 2020 pour la troisième fois.

Le deuxième gros projet de l'année 2019 était les fêtes du village.

Le vendredi soir, nous vous avons proposé un spectacle d'hypnose présenté par John Mak. Une cinquantaine de personnes ont assisté au spectacle (certains ont même joué le jeu en se faisant hypnotiser) et ont pu déguster talos, sandwiches, et boissons.

Le samedi, les enfants (et certains parents) sont venus jouer, et faire le goûter sous le chapiteau, au milieu des jeux de " À Vous 2 Jouer" . Babygym, château gonflable, piscine à balles, air hockey, tracteur, pelles, swing roller... Il y en avait pour tous les goûts ! Pendant ce temps, nos cuisiniers s'affairaient autour de la cuisson des gigots. 200 personnes se sont retrouvées autour des tables dressées pour le méchoui animé par Suhiltzaileen Kantua qui vous ont fait chanter, et même danser ! Pour le bal, les jeunes du groupe Katxi ont animé la soirée jusqu'à 4h00.

La journée du dimanche était très chargée : messe, apéritif et kantaldi animé par Antton Larrandaburu et Altzukutarrak qui ont présenté quasiment deux heures de spectacle et qui ont réuni une centaine de personnes. Ensuite pour la première fois cette année nous avons préparé des pâtes carbonara en self-service préparé par nous-même qui ont beaucoup plu aux trentaines de personnes qui étaient présentes. Un dimanche de fête magnifique à Isturits !

Une centaine de villageois ont fait le déplacement le dimanche suivant, pour partager un bon repas préparé par Bixente Chapelet et nous même, sous l'animation du groupe Aistrika.

Au niveau du bureau, Maritxu HARAMBOURE a pris la présidence, avec Matthias SANBERRO en tant que vice-président. Bixente CARCELLER prend la place de trésorier et Angelo CARCELLER reste secrétaire.

Malgré une baisse du nombre de participants au méchoui le comité est très fier d'avoir organisé ces animations. Un immense merci à tous les bénévoles, et une grande reconnaissance envers les villageois qui sont toujours présents lors de nos différentes manifestations.

Malgré le contexte difficile de cette année le comité espère organiser au mieux les fêtes d'Isturits 2020.





Isturitzeko Gazteria

2019. urtean, besta batzordeak bi egitasmo antolatu eta bideratu zituen.

Lehen a izan zen sagarno gualdia, otsailaren 9an. Etorri ziren jendeek apairu goxoa dastatzeko aukera izan zuten: txorizoa sagarnoan, bakailao-tortilla, txuleta, onddozuriak, nahi bezainbat edan zitekeen sagarinoa ahanzi gabe. Gauerditik goiti, Podium Galaxiiek zuen gualdiaren bigarren zatia alaitu gaueko laurak arte. Jende anitz hurbildu zen taldearen musiken doinura dantzari aritzeko. Gualdi biziki goxoa, 2020an hirugarren aldikotz iragan zena.

2019ko bigarren egitasmo nagusia herriko bestak ziren.

Ostiral gauean, John Makek aurkeztutako hipnosi-ikuskizun bat proposatu genuen. Berrogeita hamar bat lagun hurbildu ziren (horietarik batzuek parte hartu zuten hipnotizatuak izanez) eta taloak, ogitartekoak eta edariak dastatu ahal izan zituzten.

Larunbatean, haurrak (eta guraso batzuk) jostatzera eta krakada hartzera etorri ziren karparen pean, "A Vous 2 Jouer" jokoen artean. Babygym, gaztelu puzgarria, pilota-igerilekua, aire hockeya, traktorea, palak, swing roller... Hor zeuden zaletasun guziak asetzekoak! Bitartean, gure sukaldariak azpikiak erretzeari lotzen ari ziren karraskan. 200 lagun bildu ziren mahaien inguruan Suhiltzaileen Kantuak alaitutako zikiri kari eta haiei esker kantatu zenuten bai eta dantzatu ere! Ondotik, dantzaldia alaitu zuten Katxi taldeko gazteek gaueko laurak arte.

Egun kargatua genuen igandea: meza, zintzur bustitzea eta Antton Larrandaburu eta Altxukutarrak taldeak alaitutako kantaldia. Azken horiek kasik bi oreneko ikuskizuna eman zuten eta ehun bat lagun bildu zituzten. Ondotik, aurten lehen aldikotz, autozerbitzu moduan prestatu genituen pastak Carbonara eran eta hurbildu ziren hogeita hamar bat lagunei gustatu zitzaizkien. Igande besta zoragarria Izturitzen!

Ehun bat herritar etorri ziren ondoko igandean Bixente Chapeletek eta guk prestatu genuen bazkariak elkarrekin gozatzeko, Aistrika taldeak alaiturik.

Bulegoari dagokionez, Maritxu HARAMBOURE izendatua izan da lehendakari eta Matthias SANSBERRO lehendakariorde. Bixente CARCELLER diruzain bilakatzen da eta Angelo CARCELLER idazkari egoten da.

Zikiriok parte hartzea apalagoa izanik ere, batzordea animazio horiek antolatzeaz harro dago. Bihotzez eskertzen ditugu boluntario guziak eta gure animazio desberdinetara aldiro etortzen diren herritar guziak.



Aurtengo egoera latza izanik ere, besta batzordeak 2020ko Izturitzeko bestak ahal bezain ongi antolatzeko xedea dauka.



Lors de l'Assemblée Générale 2019 qui s'est déroulée le 7 Février 2020, Erberua a présenté le bilan moral et financier de l'Association.

Le tournoi de « pala ancha » perdure depuis 35 ans, il anime le village de novembre à fin mars de l'année suivante.

Les 70 équipes sont issues de tout le Pays Basque.

L'équipe des bénévoles, juges et buvettes, permet un bon déroulement de cette animation, dans une ambiance conviviale. Nous les remercions vivement pour leur participation active.

Une autre manifestation importante de l'association, la randonnée pédestre et VTT, qui s'est déroulée le dimanche 27 octobre, a réuni 196 VTT et 296 marcheurs (adultes et enfants).

Nous remercions vivement :

- les 80 bénévoles, qui le jour J, apportent leur aide pour les parkings, les inscriptions, les ravitaillements, les différents points de sécurité et pour les services de restauration, plus particulièrement les cuisinières qui se sont mobilisées pour la réussite de cette journée.

- les différents propriétaires qui nous autorisent à passer sur leurs terres, et les agriculteurs qui nettoient certains chemins avec leur tracteur.

- les bénévoles qui se sont retrouvés plusieurs soirs pour préparer les circuits, et les personnes qui ont débroussaillé les pistes du circuit dans la journée.

- Jean Michel et Sylvain Donapetry qui mettent à disposition leur champ afin que les nombreux véhicules puissent se garer en toute sécurité.

Un grand merci à Bernadette LISSAR, qui a quitté Isturits en ce début d'été, elle a fait don d'une plancha à ERBERUA qui servira lors de la prochaine rando...certainement en 2021...

En 2019, ERBERUA a choisi d'aider financièrement l'Association " La Ferme d'Uhaldia" d'Hasparren, dont l'objet est l'Insertion sociale et professionnelle de personnes majeures, mixtes, éloignées de l'emploi, avec une activité agricole dans le maraichage biologique. Elle recueille des dons afin de financer l'installation des serres et l'achat des premières plantations.

Lors de l'AG, un chèque de 500€ a été remis à Julie Abbadie , coordinatrice du projet.

ERBERUA



2020ko otsailaren 7an iragan den 2019ko Biltzar Nagusian, Erberuak elkarteak bere ekintzen, norabideen eta finantzen bilduma aurkeztu du.

Badu 35 urte « palantxa » torneoak irauten duela. Herria animatzen du azarotik ondoko urteko martxoraino

70 taldeak Ipar Euskal Herri osotik heldu dira.

Animazio hori, lagunen arteko giro on batean iragaiten da, urririkako langileen, epaileen eta edantegiko lantaldearen lanari esker.

Elkarteak beste ekitaldi premiatsu bat antolatzen du, oinezkoen eta mendi bizikletazkoen ibilaldia. Urriaren 27an, igandearekin iragan zen eta 196 VTT eta 296 oinezko ibiltzaile (helduak eta haurrak) bildu zituen.

Handizki eskertu nahi genituzke:

- 80 urririkakoak, ekitaldi egunean beren laguntza ekarri baitute aparkalekuetan, izen emateetan, hornitzeetan, segurtasun puntuetan eta bereziki sukaldariak, egun hori arrakastatsua izateko mobilizatu baitira.

- lur eremuen jabeak, beren lurretan gaindi pasatzeko baimena eman baitaukute, eta laborariak, bide batzu garbitzen baitituzte beren traktoreekin.

- ibilbide itzulien prestatzeko, arrats anitzez bildu diren urririkakoak, eta ibilbide itzuli horietako sasiak egunaz garbitzen arizan diren pertsonak.

- Jean Michel eta Sylvain Donapetry, beren pentzea uzten baitute, autoak segurtasun osoan aparka daitezen.

Esker handi bat, uda hastapenean Isturitzetik joan den Bernadette LISSARI, plantxa bat eman baitio ERBERUARI, 2021ko ibilaldian berriz erabiliko dena... hain segur...

2019an, ERBERUAK erabaki zuen Hazparneko "Uhaldia etxaldea" elkarte laguntzea. Elkarrekin lanetik urrunduak diren jende helduak gizarteratzen laguntzen ditu laborantzaren bitartez, bio baratzezaingoan ar araziz. Diru emaitzak biltzen ditu berotegien instalatzeko eta lehenbiziko landareen erosteko.

Biltzar nagusian, proiektu honen koodinatzailea den Julie Abbadie-k 500€ko txekia ukan du.

